



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko apirilaren 12a

59. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina hein batean aldatzen duena (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Colegio Navarro de Periodistas/Nafarroako Kazetarien Elkargoa sortzekoa. Irakurketa bakarrean izapidetzea (12. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da prestakuntza-programa bat taxutu dezan, Espezializazio Adimendunerako Estrategia behar duten eskariak egokitzera bideratua. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da familiei lagun egitera, gurasotasun positiboa landuz egoitza-harrera espezializatuan, oinarrizko egoitza-harreran eta autonomia-prozesuan dauden adingabeen kasuan. Mónica Doménech Linde andreak aurkeztu du (14. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Manuel García Caparrósen hilketa argitze aldera gazte andaluziar horren familiak egiten duen aldarrikapenarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Gobernua eta Diputatuen Kongresua premiatzen baititu Konstituzioa alda dezaten, pentsioen sistema publikoa ukitzea, murriztea edo pribatizaztea debekatzeko. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu Tantan eta Alexandrian bi eliza kristau koptoren aurka egindako atentatu terroristak. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu ETA banda terroristak egindako hilketak, zaurituak, bahiketak eta estortsioak. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu Stockholmen iragan apirilaren 7an izandako atentatua. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Amancio Ortega Fundazioak egindako dohaintzari buruzkoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, British edo Ingeleseztan Ikasteko Programa egiten ari diren ikasleen ebaluazio diagnostikoa dela eta ikastetxeetara igortzen ari den komunikazioari buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ETaren terrorismoari buruzko kontakizun berekia egiteko asmoa duen ala egiazki gertatu zena kontatuko duen. Carlos García Adanero jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuaren ustez ETaren terrorismoaren aurkako borrokan ez duen ez garaiturik ez garailerik egon behar bake iraunkorra lortuko bada. Carlos García Adanero jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ekimenik abiaraziko duen Espainiako gainerako erkidegoetan baino mantsoago hazteko aurreikuspena zuzentzeko. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (20. or.).
- Galdera, Euskal Herriko Itzulia Iruñetik irtetearen benetako asmoari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (21. or.).
- Galdera, altxamendu militarra, Gerra Zibila eta diktadurako errepresioa pertsonalki nahiz kolektiboki goratzeko armarriak, intsigniak, plakak eta gainerako objektu edo aipamenak Nafarroako Gobernuaren Jauregitik erretiratzeari buruzkoa. Laura Lucía Pérez Ruano andreak egin du (21. or.).
- Galdera, Cascanteko alkateak Garapen Ekonomikorako kontseilariari egindako bilera-eskariari buruzkoa. Óscar Arizcuren Pola jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, krisiak Erriberan gehien zigortutako eremuak Enplegu Planean ezartzeko irizpideei buruzkoa. Óscar Arizcuren Pola eta Alberto Catalán Higuera jaunak egin dute (23. or.).
- Galdera, jakiteko ea Garapen Ekonomikorako Departamentuak Cascanteko Udalaren eskaria aintzat hartuko duen eta, hartara, herria Enplegu Planean sartuko duen. Óscar Arizcuren Pola eta Alberto Catalán Higuera jaunak egin dute (24. or.).
- Galdera, lan-eskaintza publikoetako deialdietan ingeleseko titulazioa merezimendu gisa kontuan hartzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (25. or.).
- Galdera, garraibide egokitueterako diru-laguntzak emateko deialdiari eta mugikortasun mugatuko pertsonen irisgarritasuna errazteko neurriei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (25. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina hein batean aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2017ko apirilaren 5ean hartutako erabakiaren bidez, honako foru lege proiektu hau igorri dio Nafarroako Parlamentuari: "Foru Lege proiektua, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina hein batean aldatzen duena".

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Aipatu Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proiektua, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina hein batean aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

I

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina hein batean aldatzeko foru lege honen bidez, errentak bermatzeko sistemak aurrerapauso handia egiten du Nafarroan babeserako ahalmena areagotzeko dagokionez, nabarmen hobetzen duelako pentsio apalenak jasotzen dituztenen errenta erabilgarria, eta aplikazio esparrua ere asko zabaltzen delako. Horrela, gaur arte alargun-pentsioei aplikatu zaien kenkari osagarrien sistema fiskala hobetzearekin batera, erretiro-pentsioetara zabalduko da sistema hori bera; halatan, pertsona horien errenta erabilgarria handitu egiten da, haien bizi-baldintzak hobetzen laguntzeko.

Alargun-pentsioengatiko kenkarien kasuan, beharrezkoa da arau aldaketa bat egitea, 2017ko lanbide arteko gutxieneko soldata (LGSa) finkatzen duen abenduaren 30eko 742/2016 Errege Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrean xedatzen baita LGSaren zenbateko berriak ez diela eragiten estatukoak ez diren arauetan jasotako erreferentziei. Bidezkotzat jotzen da alargun-pentsioengatiko kenkari honen erreferentzia 2017ko LGSa adinako zenbatekoa izatea, 2016koa baino %8 handiagoa, beraz.

Erretiro-pentsioengatiko kenkaria ezartzeak igoera progresiboa ekarriko du, 2019an guztiz bat egin arte alargun-pentsioengatiko kenkariari aplikatzen zaizkion zenbatekoekin; 2017an, kenkariaren erreferentziako zenbatekoa 2016ko LGSa

adinakoa izanen da, %2 gehituta; 2018koa, berriz, zenbateko hori gehi %3 izanen da, eta 2019an, azkenik, berdinduta geldituko dira, berriz ere %3 gehituta.

Neurri horiez gain, kenkarirako eskubidea zehazteko, subjektu pasiboaren eta bere familia unitatearen beste errenta batzuk ere kontatuko direla ezartzen da arauan, eta horrek, beraz, hobekuntza ekarriko du, bai birbanaketaren ondorioetarako bai ahalegin fiskala premia handiena duten gizataldeengana bideratzeari dagokionez.

Era berean, foru lege honekin bermatzen da etorkizunean pentsiodun guztien errenta erabilgarrien gutxieneko horien balioa urtero berrituko dela KPIarekin, halako moduan non pentsio apalenak jasotzen dituztenen erosahalmena mantenduko baita, LGSaren erreferentziaz harago joanda, izan ere, LGSa Espainiako Gobernuaren eta Gorte Nagusien erabaki politikoaren menpe dagoenez, ez du bermatzen prezioen bilakaerari erantzutea.

Kenkari fiskalak erretiro-pentsioak jasotzen dituzten guztiengana zabaltea behin eta berriz adierazitako asmoa izan da, eta pentsiodun guztiengana sarrera duinak ziurtatzeko konpromisoa bete-betean onartzea dakar berarekin. Neurri fiskal horri esker, Nafarroako politika soziala koherenteagoa eta zuzenagoa izanen da, eta horrela behin betiko gaindituko da alargun-pentsioei emandako tratamendu kaltegarria, behar bezala inoiz justifikatu ez dena.

Pentsio hauen tratamendu fiskala babes sozialerako beste neurri batzuekin uztartzen da, hala nola errenta bermatuarekin edo kotizazio gabeko pentsioen bestelako tratamendu batekin; errentak bermatzeko sistema osoaren koherentzia hobetuko duen planteamendua osatzen da horrela, egoera bakoitzean sarrera duin eta egokiak bermatzeko helburuarekin.

II

Testuinguru horretan, foru legeak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 68. artikulua aldatzen du; izenak adierazgarria izan nahi du: alargun-pentsioen eta kotizaziopeko erretiro-pentsioen ondoriozko kenkariei buruzkoa da. Alegia, kenkari horien erregulazio berriak, artikulua horretan jasotakoak, bi multzokoak hartzen ditu, batetik alargun-pentsioak (Gizarte Segurantzakoak, gutxienekoetarainoko osagarria dutenak eta ez dutenak, eta SOVIkoak), eta bestetik kotizaziopeko erretiro-pentsioak.

Artikuluak bi letra ditu. A) letrak alargun-pentsioengatiko kenkariak aurreikusten ditu eta lau atal ditu.

1. ataleko gaia gutxienekoetarainoko osagarriak jasotzeko eskubidea duten alargun-pentsioengatiko kenkaria da. Atal honetan, adierazgarriena da kenkaria aurrerantzean ez dela lotuta egonen lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGSa) zenbatekoarekin, eta berritasun hau ezartzen dela: pentsioaren zenbatekoa 9.906,40 eurotik beherakoa denean, kenkari bat egiten ahalko da jasotako pentsioaren zenbatekoaren (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren Testu Bateginaren 60. artikuluan araututako amatasuneko osagarria barne, kasua bada) eta 9.906,40 euroko zenbateko horren arteko alde negatiboa adinakoa.

2. eta 3. ataletako gaiak, hurrenez hurren, hauek dira: gutxienekoetarainoko osagarriak jasotzeko eskubiderik ez duten alargun-pentsioengatiko kenkariak, eta Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruko (SOVI) alargun-pentsioengatiko kenkaria.

Bi aldaketa egiten dira. Bata lehen aipatutakoa da, alegia, lanbide arteko gutxieneko soldatarekin (LGSa) ez dela lotuta egonen, eta kenkariaren zenbatekoaren erreferentzia 9.906,40 euroko zenbatekoa izanen dela; bestea, berriz, errenta eta ondare muga bat ezartzen dela kenkariaren baliatzeke. Horrela, xedatzen da kenkari horiek egiteko beharrezkoa izanen dela subjektu pasiboa beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitorpena aurkeztera, eta, horrekin batera, zergaldian, guztira, 17.022,60 eurotik gorako zenbatekoa egiten duten beste errentarik jaso ez izana, salbuesiak barne, alargun-pentsioa eta dagokion kenkaria gehituta. Beste zehaztapen bat dago, alegia, aipatutako errenten batura muga horretatik gora baldin badago, gehiegizko kopurua kenkariaren zenbatekoari kenduko zaiola, kenkaria baliogabetzeraino ere, kasua bada.

Orobat adierazten da, subjektu pasiboa familia unitate bateko kide denean, kenkaria egiteko beharrezkoa izanen dela familia unitate horretako kiderik bat ere beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitorpena aurkeztera, eta, gainera, errenta muga 19.812,80 eurokoa izanen da, familia unitate osoa hartuta, eta kenkariari dagokiona kenduko zaio familia unitateko kide ez diren subjektu pasiboaren kasuan ezarritako moduan.

Azkenik, xedatzen da errenta muga zehazterakoan ez direla sartuko pobrezia energetikoa edo etxebizitzaren galera saihesteko laguntza publikoak, ahulezia ekonomiko handiko etxeetan edo bazter-

keta sozialaren arriskua dutenetan jasotzen direnak.

Letra honen 4. atalean alargun-pentsioengatiko kenkariari aplikatu beharreko arau orokorrak jasotzen dira, eta merezi du nabarmentzea hiru kenkariak bateraezinak izanen direla Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legean araututako errenta bermatuaren prestazioa jasotzearekin, baina errenta bermatuaren prestazioa zergaldi osoan jaso ez bada, kenkari fiskalak prestazioa jaso ez den egunen kopuruaren proportzioan kalkulatu dira.

Osagarri gisa, zehazten da kenkariaren eta errenta mugaren kalkulurako kontuan hartu beharreko kopuruak aurreko urtean izandako Kontsumoko Prezioen Indizeari (KPIa) jarraikiz eguneratuko direla.

68. artikuluko B) letran, kotizaziopeko erretiro-pentsioengatiko hiru kenkari berriak arautzen dira: gutxienekoetarainoko osagarriak jasotzeko eskubidea duten erretiro-pentsioengatiko kenkariak, gutxienekoetarainoko osagarriak jasotzeko eskubidea ez duten erretiro-pentsioengatiko kenkariak, eta zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko aseguru (SOVI) zahartzaroko pentsioengatiko kenkariak.

Hiru kasuetan, 2017an kenkari fiskala kalkulatzeko, jasotako pentsioaren zenbatekoaren (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginekoko 60. artikuluan araututako amatasunekoko osagarria barne, kasua bada) eta 9.356,30 euroko zenbatekoaren arteko alde negatiboa hartuko da. 2018an, 9.631,40 euroko zenbatekoari 2017ko Kontsumoko Prezioen Indizea (KPIa) aplikatuz kalkulatu da kenkaria. 2019an, 9.906,40 euroko zenbatekoari 2017ko eta 2018ko Kontsumoko Prezioen Indizea (KPIa) aplikatuz kalkulatu da kenkaria. Hurrengo urteetan, aurreko urtekoari Kontsumoko Prezioen Indizea (KPIa) aplikatzearen emaitza izanen da zenbatekoa.

Errenta mugari dagokionez, erregulazioa A) letrakoa bera da, hau da, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboa beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitortpena aurkeztera, eta, horrekin batera, zergaldian, guztira, 17.022,60 eurotik gorako zenbatekoa egiten duten beste errentarik jaso ez izana, salbuetsiak barne, alargun-pentsioa eta dagokion kenkaria gehituta. Beste zehaztapen bat dago, alegia, aipatutako errentak muga horretatik gora baldin badaude, gehiegizko kopurua kenkariaren zenbatekoari kenduko zaiola, kenkaria baliogabetzeraino ere, kasua bada.

B) letran araututako erretiro-pentsioengatiko kenkariari aplikatu beharreko arau orokorre dago-kionez, xedatzen da, halaber, hiru kenkariak bateraezinak izanen direla errenta bermatuaren prestazioa jasotzearekin. A) letran xedatutakoaren kasuan ez bezala, kenkari hauen ordainketa ezin izanen da aurreratu. Azkenik, arau batzuk ezartzen dira kenkaria eta errenta muga kalkulatzeko kontuan hartu beharreko kopuruak urtero Kontsumoko Prezioen Indizeari (KPIa) jarraikiz eguneratzeko.

Kotizazio gabeko erretiro-pentsioengatiko kenkari fiskalari buruzko 68.bis artikuluan ere zenbait aldaketa egin dira. Jakina denez, kotizazio gabeko erretiro-pentsioa jasotzen duen subjektu pasiboak, aldi berean errenta bermatua jasotzeko baldintzak betetzen baditu, kenkari fiskala egiten ahalko du, zegokiokeen errenta bermatuaren urteko zenbatekoa izanen duena. Pertsona guztiek gizarteratzeko eta errenta bermatua jasotzeko eskubideaz baliatzea bermatzeko xedeaz, paragrafo berri bat gehitzen zaio artikuluko horren 1. atalari, honakoa zehazteko: kenkaria Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legearen lehen xedapen gehigarriaren 2. ataleko bigarren paragrafoan aurreikusitakoari jarraikiz egiten da, hau da, kenkari fiskala egiteko eskubidea izanen da, soilik, familiar prozedura arruntaren bidez errenta bermatua jaso dezakeen beste kiderik ez badago.

Beste alde batetik, foru legean berezitasun adierazgarri batzuk jasotzen dira irabazi-asmorik gabeko entitateek ordaindutako zenbatekoen gaineko atxikipen eta informazio betebeharre dago-kionez, betiere zenbateko horiek lan etekinak direnean eta kirol jarduerak sustatu edo egiteko eta kultur proiektuak eta jarduerak egiteko erabiltzen badira.

Horretarako, berrogeita hamahirugarren xedapen gehigarria gehitzen da, ezartzen duena jasotzaile bakoitzeko urteko zenbatekoa 3.600 eurokoa edo txikiagoa denean ez dela atxikipenik egin ez informazio erduan jaso beharrik izanen. Salbuespen edo berezitasun horiek eransten dira zerga araua sinpleagoa eta betetzen errazagoa izan dadin; kontuan harturik, gainera, ordainsari txiki horiek joan-etorrietako gastuak eta materialaren erabilera konpentsatzeko izaten direla askotan.

Jasotzaile bakoitzeko zenbatekoak urtean 3.600 eurotik gorakoak direnean, ordea, tributu araubide orokorraren menpe egonen dira atxikipena egin eta informazioa eman beharrik dago-kionez. Orobat zehazten da, atxikipen portzentajeen taularen arabera atxikipenik egin behar ez badute ere, ordaindutako etekin osoaren gaine-

ko % 2ko atxikipena edo konturako sarrera eginen da beti.

Azkenik, zuzenketa tekniko batzuk egiteko xedeaz, Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legearen zenbait manu aldatzen dira, azken xedapenetako lehenean jasotzen den moduan.

Nafarroako Parlamentuaren Testu Bateginaren 157. artikuluan ezarritakoaren babesean, Foru Legearen izaera eta helburuak aintzat harturik, zuzenean tramitatu nahi da, Parlamentuaren Osoko Bilkuran irakurraldi bakarra eginez.

Artikulu bakarra. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina.

Ondorioak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izateko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren manu hauek (testu bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) testu hau izanen dute:

Bat. 68. artikulua. Alargun-pentsioen eta kotizaziopeko erretiro-pentsioen ondoriozko kenkariak.

A) Alargun-pentsioengatiko kenkariak.

1. Gutxienekoetarainoko osagarriak jasotzeko eskubidea duten alargun-pentsioengatiko kenkaria.

Lehena. Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, alargun-pentsioa jasotzen duen subjektu pasiboak, gutxienekoetarainoko osagarriak, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuen Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren Testu Bateginaren 59. artikuluan aipatutakoak, jasotzeko eskubidea badu, kenkari bat aplikatzen ahalko du, kasuan kasuko pentsio motarentzat ezarritako urteko gutxieneko zenbatekoaren (aipatutako testu bateginaren 60. artikuluan arautzen den amatasuneko osagarria gehituta, kasua bada) eta 9.906,40 euroko zenbatekoaren arteko alde negatiboa adinakoa.

Bigarrena. Alargun-pentsioa beste pentsio batzuekin batera jasotzen den kasuan, kenkaria izanen da jasotako pentsioen zenbatekoen baturaren (amatasuneko osagarria barne, kasua bada) eta 9.906,40 euroko zenbatekoaren arteko alde negatiboa adinakoa.

Hirugarrena. Gai sozialen arloko eskumena duen departamentuari kenkari hori aurreratuta ordaintzeko eskatzen ahalko zaio. Kasu horretan ez da kenkaririk aplikatuko zergaren kuota diferentzian.

Kenkaria egiteko prozedura erregelamendu bidez arautuko da, bai eta aurreraturik ordaintzea eskatu eta lortzeko prozedura ere. Erregelamendu horretan gutxieneko bat ezartzen ahalko da, kudeaketaren eragimena irizpidetzat hartuta, eta gutxieneko horretatik behera ez da kenkariaren ordainketa aurreraturik jasoko.

2. Gutxienekoetarainoko osagarriak jasotzeko eskubidea ez duten alargun-pentsioengatiko kenkaria.

Lehena. Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, Gizarte Segurantzatik kotizaziopeko alargun-pentsioa jasotzen duen subjektu pasiboak, pentsio hori kasuan kasuko pentsio motarentzat finkatutako urteko gutxienekotik gorakoa eta 40 euroko zenbatekotik beherakoa bada, kenkari bat egiten ahalko du, jasotako pentsioaren zenbatekoaren (aipatutako testu bateginaren 60. artikuluan arautzen den amatasuneko osagarria barne, halakorik bada) eta 9.906,40 euroko zenbatekoaren arteko alde negatiboa adinakoa.

Bigarrena. Alargun-pentsioa beste pentsio batzuekin batera jasotzen den kasuan, kenkaria izanen da jasotako pentsioen zenbatekoen baturaren (amatasuneko osagarria barne, kasua bada) eta 9.906,40 euroko zenbatekoaren arteko alde negatiboa adinakoa.

Hirugarrena. Kenkari hori egiteko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboa beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitorpena aurkeztera, eta, horrekin batera, zergaldian, guztira, 17.022,60 eurotik gorako zenbatekoa egiten duten beste errentarik jaso ez izana, salbuetsiak barne, alargun-pentsioa eta dagokion kenkaria gehituta.

Aipatutako errentak muga horretatik gora baldin badaude, gehiegizko kopurua kenkariaren zenbatekoari kenduko zaio, kenkaria baliogabetzera ere, kasua bada.

Subjektu pasiboa familia unitate bateko kide denean, kenkaria egiteko beharrezkoa izanen da familia unitate horretako kiderik bat ere beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitorpena aurkeztera, eta, gainera, lehen paragrafoan ezarritako errenta muga 19.812,80 eurokoa izanen da, familia unitate osoa hartuta, eta kenkariari dagokiona kenduko zaio bigarren paragrafoan ezarritako moduan.

Aurreko paragrafoetan ezarritako errenta muga zehazterakoan, ez dira sartuko pobrezia energetikoa edo etxebizitzaren galera saihesteko laguntza publikoak, ahulezia ekonomiko handia edo bazterketa sozialaren arriskua duten etxeetan jasotzen direnak.

Laugarrena. 2. atal honetan araututako kenkaria ez da aurreraturik ordainduko.

Kenkari hori baliatzeko prozedura erregelamendu bidez ezarriko da.

3. Zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko aseguruaren alargun-pentsioen ondoriozko kenkaria

Lehena. Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko aseguru (SOVI) alargun-pentsioa jasotzen duen subjektu pasiboak, kenkari bat egiten ahalko du, jasotako pentsioaren zenbatekoaren (aipatutako testu bateginaren 60. artikuluan arautzen den amatasuneko osagarria barne, kasua bada) eta 9.906,40 euroko zenbatekoaren arteko alde negatiboa adinakoa.

Bigarrena. Zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko aseguru (SOVI) alargun-pentsioa beste pentsio batzuekin batera jasotzen den kasuan, kenkaria izanen da jasotako pentsioen zenbatekoen baturaren (amatasuneko osagarria barne, kasua bada) eta 9.906,40 euroko zenbatekoaren arteko alde negatiboa adinakoa.

Hirugarrena. Kenkari hori egiteko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboa beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitorpena aurkeztera, eta, horrekin batera, zergaldian, guztira, 17.022,60 eurotik gorako zenbatekoa egiten duten beste errentarik jaso ez izana, salbuetsiak barne, alargun-pentsioa eta dagokion kenkaria gehituta.

Aipatutako errentak muga horretatik gora baldin badaude, gehiegizko kopurua kenkariaren zenbatekoari kenduko zaio, kenkaria baliogabeteraino ere, kasua bada.

Subjektu pasiboa familia unitate bateko kide denean, kenkaria egiteko beharrezkoa izanen da familia unitate horretako kiderik bat ere beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitorpena aurkeztera, eta, gainera, lehen paragrafoan ezarritako errenta muga 19.812,80 eurokoa izanen da, familia unitate osoa hartuta, eta kenkariari dagokiona kenduko zaio bigarren paragrafoan ezarritako moduan.

Aurreko paragrafoetan ezarritako errenta muga zehazterakoan, ez dira sartuko pobrezia energetikoa edo etxebizitzaren galera saihesteko laguntza publikoak, ahulezia ekonomiko handia edo bazterketa sozialaren arriskua duten etxeetan jasotzen direnak.

Laugarrena. Gai sozialen arloko eskumena duen departamentuari kenkari hori aurreratu ordaintzeko eskatzen ahalko zaio. Kasu horretan

ez da kenkaririk aplikatuko zergaren kuota diferentzialean.

Kenkaria egiteko prozedura erregelamendu bidez arautuko da, bai eta aurreraturik ordaintzea eskatu eta lortzeko prozedura ere. Erregelamendu horretan gutxieneko bat ezartzen ahalko da, kudeaketaren eragimena irizpidetzat hartuta, eta gutxieneko horretatik behera ez da kenkariaren ordainketa aurreraturik jasoko.

4. A) letrako kenkariei aplikatu beharreko arau orokorrak.

Lehena. Letra honetan araututako kenkariak kalkulatzearen ondorioetarako, alargun-pentsioa edo beste edozein pentsio ez baldin bada jaso zergaldi osoan, zenbateko hori urtera eramanen da. Kasu horretan, zergaldian zehar alargun-pentsioa jasotzeko eskubidea dagoen egun kopuruaren arabera kalkulatu da kenkaria.

Bigarrena. Letra honetan araututako kenkariak bateraezinak dira Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legean arautzen den errenta bermatuaren prestazioa jasotzearekin.

Nolanahi ere, errenta bermatuaren prestazioa zergaldi osoan jaso ez bada, kenkariak prestazioa jaso ez den egunen kopuruaren proportzioan kalkulatu dira.

Hirugarrena. Diru kopuru horiek, 9.906,40, 17.022,60 eta 19.812,80 eurokoak, A) letra honetan aipatzen direnak, 2017an aplikatuko dira. Hurrengo urteetan, kopuruak aurreko urteko Kontsumoko Prezioen Indizeari (KPIa) jarraikiz eguneratuko dira.

B) Kotizaziopeko erretiro-pentsioengatikoko kenkariak.

1. Gutxienekoetarainoko osagarriak jasotzeko eskubidea duten kotizaziopeko erretiro-pentsioengatikoko kenkariak.

Lehena. Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, Gizarte Segurantzatik kotizaziopeko erretiro-pentsioa jasotzen duen subjektu pasiboak, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren Testu Bateginaren 59. artikuluan aipatutako gutxienekoetarainoko osagarriak jasotzeko eskubidea badu, kenkari bat aplikatzen ahalko du, kasuan kasuko pentsio motarentzat ezarritako urteko gutxieneko zenbatekoaren (aipatutako testu bateginaren 60. artikuluan arautzen den amatasuneko osagarria gehituta, kasua bada) eta 9.356,30 euroko zenbatekoaren arteko alde negatiboa adinakoa.

Bigarrena. Erretiro-pentsioa beste pentsio batzuekin batera jasotzen den kasuan, kenkaria izanen da jasotako pentsioen zenbatekoen baturaren (amatasuneko osagarria barne, kasua bada) eta 9.356,30 euroko zenbatekoaren arteko alde negatiboa adinakoa.

2. Gutxienekoetarainoko osagarriak jasotzeko eskubidea ez duten kotizaziopeko erretiro-pentsioengatiko kenkariak.

Lehena. Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, Gizarte Segurantzatik kotizaziopeko alargun-pentsioa jasotzen duen subjektu pasiboak, pentsio hori kasuan kasuko pentsio motarentzat finkatutako gutxienekotik gorakoa eta 9.356,30 euroko zenbatekotik beherakoa bada, kenkari bat egiten ahalko du, jasotako pentsioaren zenbatekoaren (aipatutako testu bateginaren 60. artikuluan arautzen den amatasuneko osagarria barne, halakorik bada) eta 9.356,30 euroko zenbatekoaren arteko alde negatiboa adinakoa.

Bigarrena. Erretiro-pentsioa beste pentsio batzuekin batera jasotzen den kasuan, kenkaria izanen da jasotako pentsioen zenbatekoen baturaren (amatasuneko osagarria barne, kasua bada) eta 9.356,30 euroko zenbatekoaren arteko alde negatiboa adinakoa.

Hirugarrena. Kenkari hori egiteko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboa beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitortpena aurkeztera, eta, horrekin batera, zergaldian, guztira, 17.022,60 eurotik gorako zenbatekoa egiten duten beste errentarik jaso ez izana, salbuetsiak barne, erretiro-pentsioa eta dagokion kenkaria gehituta.

Aipatutako errentak muga horretatik gora baldin badaude, gehiegizko kopurua kenkariaren zenbatekoari kenduko zaio, kenkaria baliogabeteraino ere, kasua bada.

Subjektu pasiboa familia unitate bateko kide denean, kenkaria egiteko beharrezkoa izanen da familia unitate horretako kiderik bat ere beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitortpena aurkeztera, eta, gainera, lehen paragrafoan ezarritako errenta muga 19.812,80 eurokoa izanen da, familia unitate osoa hartuta, eta kenkariari dagokiona kenduko zaio bigarren paragrafoan ezarritako moduan.

Aurreko paragrafoetan ezarritako errenta muga zehazterakoan, ez dira sartuko pobrezia energetikoa edo etxebizitzaren galera saihesteko laguntza publikoak, ahulezia ekonomiko handia edo bazterketa sozialaren arriskua duten etxeetan jasotzen direnak.

3. Zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko aseguruaren (SOVI) zahartzaroko pentsioen ondoriozko kenkariak:

Lehena. Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko aseguru (SOVI) zahartzaroko pentsioa jasotzen duen subjektu pasiboak, kenkari bat egiten ahalko du, jasotako pentsioaren zenbatekoaren (aipatutako testu bateginaren 60. artikuluan arautzen den amatasuneko osagarria barne, kasua bada) eta 9.356,30 euroko zenbatekoaren arteko alde negatiboa adinakoa.

Bigarrena. Zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko aseguru (SOVI) zahartzaroko pentsioa beste pentsio batzuekin batera jasotzen den kasuan, kenkariaren zenbatekoa izanen da jasotako pentsioen zenbatekoen baturaren (amatasuneko osagarria barne, kasua bada) eta 9.356,30 euroko zenbatekoaren arteko alde negatiboa adinakoa.

Hirugarrena. Kenkari hori egiteko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboa beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitortpena aurkeztera, eta, horrekin batera, zergaldian, guztira, 17.022,60 eurotik gorako zenbatekoa egiten duten beste errentarik jaso ez izana, salbuetsiak barne, alargun-pentsioa eta dagokion kenkaria gehituta.

Aipatutako errentak muga horretatik gora baldin badaude, gehiegizko kopurua kenkariaren zenbatekoari kenduko zaio, kenkaria baliogabeteraino ere, kasua bada.

Subjektu pasiboa familia unitate bateko kide denean, kenkaria egiteko beharrezkoa izanen da familia unitate horretako kiderik bat ere beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitortpena aurkeztera, eta, gainera, lehen paragrafoan ezarritako errenta muga 19.812,80 eurokoa izanen da, familia unitate osoa hartuta, eta kenkariari dagokiona kenduko zaio bigarren paragrafoan ezarritako moduan.

Aurreko paragrafoetan ezarritako errenta muga zehazterakoan, ez dira sartuko pobrezia energetikoa edo etxebizitzaren galera saihesteko laguntza publikoak, ahulezia ekonomiko handia edo bazterketa sozialaren arriskua duten etxeetan jasotzen direnak.

4. B) Ietrako kenkariei aplikatu beharreko arau orokorrak.

Lehena. Letra honetan araututako kenkariak kalkulatzearen ondorioetarako, erretiro-pentsioa edo beste edozein pentsio ez baldin bada jaso zergaldi osoan, zenbateko hori urtera eramanen da. Kasu horretan, zergaldian zehar erretiro-pen-

tsioa jasotzeko eskubidea dagoen egun kopuruaren proportzioan kalkulatu da kenkaria.

Bigarrena. Letra honetan araututako kenkariak bateraezinak dira Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legean arautzen den errenta bermatuaren prestazioa jasotzearekin.

Nolanahi ere, errenta bermatuaren prestazioa zergaldi osoan jaso ez bada, kenkariak prestazioa jaso ez den egunen kopuruaren proportzioan kalkulatu dira.

Hirugarrena. Letra honetan araututako kenkariak ez dira aurreraturik ordainduko.

Kenkari hori baliatzeko prozedura erregelamendu bidez ezarriko da.

Laugarrena. a) Kenkaria kalkulatzeko kon-tuan hartu beharreko zenbatekoak:

9.356,30 euroko zenbatekoa, letra honen aurreko ataletan aipatzen dena, 2017an aplikatuko da.

2018an, 9.631,40 euroko zenbatekoari 2017ko Kontsumoko Prezioen Indizea (KPIa) aplikatuz kalkulatu da kenkaria.

2019an, 9.906,40 euroko zenbatekoari 2017ko eta 2018ko Kontsumoko Prezioen Indizea (KPIa) aplikatuz kalkulatu da kenkaria.

Hurrengo urteetan, aurreko urtekoari Kontsumoko Prezioen Indizea (KPIa) aplikatzearen emaitza izanen da zenbatekoa.

b) Errenta muga kalkulatzeko kon-tuan hartu beharreko zenbatekoak:

17.022,60 euroko eta 19.812,80 euroko zenbatekoak, 2.Hirugarrena eta 3.Hirugarrena ataletan aipatzen direnak, 2017an aplikatuko dira. Hurrengo urteetan, kopuruak aurreko urteko Kontsumoko Prezioen Indizeari (KPIa) jarraikiz eguneratuko dira.

Bi. 68. bis artikulua. Kotizazio gabeko erretiro-pentsioengatikoa kenkaria.

1. Dagokion kuota diferentziala finkatu ondoren, kotizazio gabeko erretiro-pentsioa (Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren Testu Bateginaren 369. artikulutik 372. artikulura bitartekoetan arautua) jasotzen duen subjektu pasiboak, Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legearen 5. artikuluan errenta bermatua jasotzeko ezarritako baldintzak betetzen baditu, zegokiokeen errenta bermatuaren urteko zenbatekoa adinako kenkaria egiten ahalko du.

Kenkaria Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legearen lehen xedapen gehigarriaren 2. ataleko bigarren paragrafoan aurreikusitakoari jarraikiz egiten da.

2. Gai sozialen arloko eskumena duen departamentuari kenkari hori aurreratuta ordaintzeko eskatzen ahalko zaio. Kasu horretan ez da kenkaririk aplikatuko zergaren kuota diferentzialean.

Kenkaria egiteko prozedura erregelamendu bidez arautuko da, bai eta aurreraturik ordaintzea eskatu eta lortzeko prozedura ere.

Hiru. Berrogeita hamahirugarren xedapen gehigarria gehitzea.

Berrogeita hamahirugarren xedapen gehigarria. Kirol eta kultura zerbitzuekin lotutako jarduerak: atxikipena egiteko eta informazioa emateko betebeharrei buruzko berezitasunak.

1. Aplikazio eremua.

a) Kirol jarduerak sustatu eta egitea xede duten irabazi-asmorik gabeko entitateek ordaindutako zenbatekoak, lan etekinen izaera dutenak, jasotzaileak kirolariak edo entrenatzaileak badira, edo osasun eta arbitraje zerbitzuak edo antzekoak ematen badituzte, betiere ematen dituzten zerbitzuek lotura baldin badute kirola egitearekin.

b) Kultur proiektuak eta jarduerak sustatu eta egitea xede duten irabazi-asmorik gabeko entitateek ordaindutako zenbatekoak, lan etekinen izaera dutenak, jasotzaileak baldin badira proiektu eta jarduera horiekin lotura duten zerbitzuak ematen dituztenak, esate baterako, ondare historiko eta kulturalarekin lotutako zerbitzuak, museoak, kultur-guneak eta liburutegiak, bai eta folklorea, antzerkia, arte eszenikoak eta ikus-entzunezkoak ere.

2. Entitate ordaintzaileak dituen atxikipen eta informazio betebeharrei dagozkien berezitasunak.

a) 3.600 euroko zenbatekoak edo txikiagoak, urteko eta jasotzaile bakoitzeko:

Ez da atxikipenik egin behar, ez eta dagoen eredu informatiboan sartu behar ere.

b) 3.600 eurotik gorako zenbatekoak urteko eta jasotzaileko: ordaindutako zenbateko osoa tributu araubide orokorraren menpe egonen da atxikipena egiteko eta kasuko eredu informatiboan informazio emateko betebeharrei dagokienez.

Nolanahi ere, atxikipen portzentajeen taularen arabera atxikipenik egin behar ez badute ere, ordaindutako etekin osoaren gaineko 100eko 2ko atxikipena edo konturako sarrera egiten da beti.

Egin beharreko atxikipena ordaindutako etekin osoaren gainean eginen da. 3.600 euroko zenbatekora iritsi arte inolako atxikipenik egin ez bada, erregularizatu egin beharko da, urte amaieran atxikitako zenbatekoa ordaindutako zenbateko osorari 100eko 2 aplikatzearen emaitza izan dadin.

3. Jasotzaileak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena aurkezteko betebeharrak.

Subjektu pasibo jasotzaileek zerga honetan aitortpena aurkezteko betebeharrari dagokionez, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudi orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

Azken xedapenetako lehena. Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legearen aldaketa.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrerako ondorioekin, Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legearen ondoko aginduek eduki hau izanen dute:

Bat. 5 artikuluko b) letra:

“b) Nafarroako Foru Komunitatean bizitzea, guxtienez eskaera aurkeztzen den data baino bi urte lehenagotik edo urte bat, familia unitatean adingabeak edo menpekotasuna duten pertsonak (% 65eko desgaitasuna edo handiagoa dutenak) daudenean.”

Bi. 6. artikuluko 3. apartatu:

“3. Oro har, familia-unitatea izanen da errenta bermatuaren jasotzailea eta prestazio bakarra egokituko zaio. Salbuespen gisa, bi errenta bermatu jasotzen ahalko dira familia unitate berean familia-nukleo bat baino gehiago daudenean, eta haietako batean adingabeak edo menpekotasuna duten pertsonak (%65eko desgaitasuna edo handiagoa dutenak).”

Hiru. 10 artikuluko e) letra:

“e) Pentsioak edo antzeko prestazioak, eskatzailearen familia/nukleokoak ez diren familia unitateko kideenak, edo eskatzailearen ardurapeko seme-alabenak, kide bakarrek unitate jasotzaile batentzako hileko errenta bermatuaren % 45 adinako zenbatekoa, gehienez ere.”

Lau. 12. artikulua:

“12. artikulua. Familia unitatearen ondare ez konputagarria.

Ondoko kontzeptuak aurreko artikuluko ondarearen konpututik salbuetsiko dira:

a) Ohiko etxebizitza, altzariak, etxeko gauzak eta garraiorako ohiko ibilgailua, gehienez ere hiru-rehun mila euro.

b) Lanbide edo enpresa jarduera betetzeko beharrezkoak diren tresnatzat hartzen diren ondasunak, erregelamenduz ezartzen den mugarekin.”

Bost. 13. artikuluko 2. apartatu:

“2. Ondasun higigarri guztien balioa kide bakarrek familia unitate bati urtean dagokion errenta bermatuaren zenbatekoaren %65 adinako edo txikiagoa denean.”

Sei. 31. artikulua:

“31. artikulua. Zehapenen mailaketa eta murrizketa.

1. Zehapenak honakoa kontuan hartuta mailakatuko dira:

a) Arau-hauslearen asmoa.

b) Arau-hauslearen ulertzeko egiazko gaitasuna.

c) Bidegabeki jasotako diru kopurua.

d) Nafarroako Administrazio Publikoek alde zurretik egindako errekerimenduak bete ez izana.

e) Familiaren egoera familiarra, bereziki egoera ekonomikoari dagokionez.

f) Urtebeteko epean, kalifikatutako arau-hauslea egin zenetik, izaera bereko edo antzeko beste arau-hauste bat edo batzuk egin izana, ebazpen administratibo bidez irmo deklaraturakoak.

g) Zehapen prozedurari hasiera ematea eragin zuten kalteak zuzendu izana, baldin eta prozedura amaitu aurretik egina bada.

2. Zehapenak murriztu eginen dira erantzukizuna onartzen denean eta borondatezko ordainketa egiten denean, administrazio prozedura erkidearen araudian aurreikusitakoarekin bat.”

Zazpi. 33. artikulua:

“33. artikulua. Zehatzeko ahalmena.

Foru Komunitateko Administrazioak zehapenak ezartzeko foru lege honetan tipifikatutako arau-hausteengatik, administrazio prozedura erkidearen araudian aurreikusitako zehapen prozedura aplikatuko da.

Zehapen prozedura arruntean ustez arau-hausleak direnen eskubideak babesteko aurreikusten diren bermeez gain, haien zehapen espediente egiaztapen batzorde batek ikustea eska dezakete, berak baimendutako pertsonarekin lagunduta emanen zaion entzunaldiaren ondotik,

alegazioak modu objektiboan eta diziplina anitzekoan baloratzeko; batzorde horren osaketa eta funtzionamendua erregelamenduz ezarriko dira. Batzorde horrek esku hartzen ahalko du, prozedura bera erabiliz, kautelazko etetearen kasuetan aurkezten diren alegazioak egiaztatu behar diren.

Zortzi. Bigarren paragrafoa gehitzen zaio lehen xedapen gehigarriaren 2. apartatuari:

“Kenkaria egiteko eskubideaz baliatzen ahalko da pentsiodunaren familia unitatean errenta bermatua prozedura arruntaren bidez jaso dezakeen beste kiderik ez dagoenean.”

Bederatzi. Bosgarren xedapen gehigarria gehitzen da:

Bosgarren xedapen gehigarria. III. kapituluko 2. ataleko prozedura.

“III. kapituluko 2. atalean aurreikusitako prozedura bide elektronikoak erabiliz gauzatu da administrazio prozedura erkidearen araudian aurreikusitako moduan.”

Hamar. Bigarren xedapen iragankorraren 1. apartatu:

“1. 14. artikulua 1. eta 2. apartatuak erregelamenduz garatzen ez diren bitartean, errenta bermatuaren jasotzaileek norbere konturako edo besteren konturako enplegua lortzen badute, edo lehendik zuten jardura ekonomikoa handitzen badute, lortutako diru-sarreraren berriak ez zaizkie kontatuko enplegua hogeita hamar egun baino gutxiagotarako baldin bada; bestela, izaera progresiboaz kontatuko da pertsona bakar baten errenta bermatuaren erdia edo gehiago egiten duten diru-sarreraren zatia, eta errenta bermatua honela kalkulatu da:

$$\text{Renta Garantizada} = \left\{ (A \times RG_1) + \left\{ B \times \left[\left(\frac{\text{Ingresos}}{100} \right) - \frac{\frac{1}{2} \times RG_1}{100} \right] \right\} \right\} - \text{Ingresos}$$

A: 0,50eko faktore zuzentzailea, 7. artikuluan adierazitako gehikuntzen gainekoa, beraz, A-ren balioak hauek dira:

Kide bakar batentzat: 1,50.

2 kiderentzat: 1,85.

3 kiderentzat: 2,10.

4 kiderentzat: 2,25.

5 kiderentzat: 2,40.

6 kiderentzat eta gehiagorentzat: 2,50.

B: 10eko balioa duen salbuespenaren progresibitate parametroa, urtero eguneratzen ahalko dena RG1-en zenbatekoen eguneraketarekin.

RG1: kide bakar baten errenta bermatuaren balioa.

Enplegurako pizgarri horiek gehienez ere urtebetez aplikatzen ahalko dira.”

Azken xedapenetako bigarrena. Arauak emateko ahalmena.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emanen ditu.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako eraginekin.

Foru Lege proiektua, Colegio Navarro de Periodistas/Nafarroako Kazetari- rien Elkargoa sortzekoa.

IRAKURKETA BAKARREAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrarekin bat, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

1. Bertan behera uztea Mahaiaren 2017ko apirilaren 3ko erabakia, zeinaren bidez Colegio Navarro de Periodistas/Nafarroako Kazetari-
rien Elkargoa sortzeko Foru Lege proiektua izapidetzea onartu baitzen, 2017ko apirilaren 7ko Nafarroako Parla-
mentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuta.

2. Colegio Navarro de Periodistas/Nafarroako Kazetari-
rien Elkargoa sortzeko Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa baka-

rrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

3. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

4. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parla-
mentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2017ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da prestakuntza-programa bat taxutu dezan, Espezializazio Adimendunerako Estrategia behar duten eskariak egokitzea bideratua.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita prestakuntza-programa bat taxutu dezan, Espezializazio Adimendunerako Estrategia behar duten eskariak egokitzea bideratua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da prestakuntza-programa bat taxutu dezan, Espezializazio Adimendunerako Estrategia behar duten eskariak egokitzea bideratua.

Espezializazio Adimendunerako Estrategiarekin Europako Batzordeak erronka bat bota die erregio guztiei, azken helburua izanik ekonomia-eredu berri bat sustatzea, erdigunea enpresetan edukiko duena eta berrikuntzaren, zientziaren, teknologiaren, nazioartekotzearen eta prestakuntzaren aldeko apustu irmo eta garbia egiten duena.

Nafarroan Espezializazio Adimendunerako Estrategia dugu Nafarroako enpresa- eta industria-ehuna garatzeko, pertsonen talentua integratuz eta indartuz eta berrikuntza eta ekintzailtza bultzatuz, Nafarroak lehiakortasun handia izan dezan.

Aldaketa bat eragin behar da, eraldaketa bat, zeinak nafar enpresei ahalbidetuko baitie berriro izatea ekonomia suspertzeko motorra, aldaketa horren eskura utzirik berrikuntzari eta ekintzailtze bultzada eta laguntza emateko sistema berri bat.

Horretarako, Europako Kontseiluaren jarraibideetan jasotzen den bezala, Nafarroak ahalegindu behar du enplegurako estrategia koordinatu bat garatzen, kualifikazioa, prestakuntza eta egokitzeko ahalmena dituen eskulana bultzatze aldera, bai eta aldaketa ekonomikoari erantzunen dioten lan-merkatuak ere, enplegu osoa eta gizartearen aurrerabidea lortzeari begira.

Industriaren eraldaketa kontuan harturik, lan arloko aldaketak aipatu eraldaketara egokitu behar ditugu. Beraz, ezinbestekoa da arreta eman behar diegu enpresen eta langileen eskaerei eta beharrezkoen eta enpresen garapenari, ekonomia-zein giza-osagaien aldetik, haien ikusgarritasuna, egonkortasuna eta hazkundea bermatzeko moduan, erkidegoaren garapen sozialari laguntza emateko.

Horiek horrela, eta jakinda pertsonak direla eraldaketa horren gakoak, eta bakarrik gauzatuko dela pertsona horien bidez eta beraiei balio erantsia emanez, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, prestakuntza-programa bat taxutu dezan, zeinak Espezializazio Adimendune-

rako Estrategiaren arloan definitzen diren lehentasuneko garapen-bektoreen eskariak egokituko baititu langile landunak, langabetuak eta, bereziki, gazteak prestatzeko programetara.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, handitu dezan Nafarroako

Enplegu Zerbitzuak langile landunak prestatzeko aurrekontu-partida.

Iruñean, 2017ko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da familiei lagun egitera, gurasotasun positiboa landuz egoitza-harrera espezializatuan, oinarrizko egoitza-harreran eta autonomia-prozesuan dauden adingabeen kasuan.

MÓNICA DOMÉNECH LINDE ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Doménech Linde andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita familiei lagun egitera, gurasotasun positiboa landuz Egoitza-harrera Espezializatuan, Oinarrizko Egoitza-harreran eta autonomia-prozesuan dauden adingabeen kasuan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, adingabeen babesari eta eguneko zentroari buruzko honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

“2016. urtean zehar, zenbait jarduketa egin dira zerbitzuen eta prestazioen arloko familia politikak finkatzeko; eta bestelako neurriak ere hartu dira babesgabetasun-testuinguruetan dauden neska-mutilak eta nerabeak babesteko”. Hala dio Eskubi-

de Sozietako lehendakariordeak gure Talde Parlamentarioari emandako erantzunak.

Hala ere, Nafarroan gero eta adingabe gehiago daude gatazka sozialean, eta tokien gehiegizko okupazioa dugu. Adingabeak babesteko 26/2015 Legeak ezartzen du haur pobrezia ez dela izan babesgabetasunerako arrazoia.

Babes sistema bermatzeko eta gizarte ongizatea mantentzeko, prebentzioko neurriak erabili behar ditugu. Izan ere, babesgabetasunaren arrazoia da guraso-ahalaren gabezia edo erabilera akastuna, alegia, adingabeen inguruneak ez du bermatzen haien babesa.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Familiei lagun egitera, gurasotasun positiboa landuz egoitza-harrera espezializatuan, oinarrizko egoitza-harreran eta autonomia-prozesuan dauden adingabeen kasuan, bai eta zailtasunean eta gatazkan dauden adingabeen kasuan ere.

– Babesgabetasunean dauden adingabeentzako eguneko zentro bat sortzera, komunitatean erabat integratua, Adingabeei giro egituratu bat eskaintzeko, egunaren zati handi batean eginez psikologia-, gizarte- eta hezkuntza-arloko jarduerak. Horrek adingabeei ahalbidetuko die beren familiaren ohiko etxean bizitzen jarraitzea.

– Adingabeen harrera-baliabideak ebaluatzea (oinarrizko egoitza, espezializatua eta autonomia-dun adingabeen programa), aldi baterako baliabide bat izan daitezen, eta ez destinoko leku bat. Eta, hala, prebentzio-neurri batzuk ezartzea, eki-

diteko adingabeak behaketa eta harrera zentroetan edo egoitza-harreretan sartzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Manuel García Caparrósen hilketa argitze aldera gazte andaluziar horren familiak egiten duen aldarrikapenarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Manuel García Caparrósen hilketa argitze aldera gazte andaluziar horren familiak egiten duen alda-

rrikapenarekin, eta auzitegiek gertakari hori ikertu behar dutela aitortzen du, bai eta García Caparrós estatu-terrorismoaren biktima gisa hartu beharra dagoela ere.”

Iruñean, 2017ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Gobernua eta Diputatuen Kongresua premiatzen baititu Konstituzioa alda dezaten, pentsioen sistema publikoa ukitzea, murriztea edo pribatizatzea debekatzeko.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak Gobernua eta Diputatuen Kongresua premiatzen ditu Konstituzioa aldatzea susta dezaten, halako moduan non espresuki debekatuko baita egungo nahiz etorkizuneko ezein gobernuak pentsioen sistema publikoa hein batean ala osorik ukitzea, murriztea edo pribatizatzea. Artikulu horrek jasoko du betebeharr

konstituzionala dela pentsioen erosahalmen erreala mantentzea eta, hortaz, ezin izanen dela hartu pentsioei eragiten ahal dien inolako neurririk –ez murrizketarik, ez zerga-igoerarik, ez koordainketarik, ez oinarrizko zerbitzuen tasen igoerarik, ez beste edozein neurririk–, salbu eta pentsioei begira onuragarriak direnak. Erabaki hauek Gobernuari eta Diputatuen Kongresuari jakinaraziko zaizkie.”

Iruñean, 2017ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu Tantan eta Alexandrian bi eliza kristau koptoren aurka egindako atentatu terroristak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten ditu Estatu Islamikoak Tantan eta Alexandrian bi eliza kristau koptoren egindako atentatu terroristak.”

Iruñean, 2017ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu ETA banda terroristak egindako hilketak, zaurituak, bahiketak eta estortsioak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten ditu ETA banda terroristak egindako hilketak, bahiketak eta estortsioak.

2. Nafarroako Parlamentuak ETArri exigitzen dio baldintzarik gabe desegin dadin, eragindako oina-zea aitortu dezan, biktimei barkamena eska diezaien eta oraindik ere argitu gabe dauden ehunka hilketa argitzen lagundu dezan.”

Iruñean, 2017ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu Stockholmen iragan apirilaren 7an izandako atentatua.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Stockholmen (Suedia) iragan apirilaren 7an izandako atentatua, 4 hildako eta ehunka zauritu eragin zituen.

2.- Nafarroako Parlamentuak bere doluminak eta elkartasuna helarazi nahi dizkie zuzenean nahiz zeharka kaltetutako pertsona guztiei.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitateko herritar guztiak premiatzen ditu adierazpen honekin bat egin dezaten eta indarkeria terrorista arbuiatzeko eta biktimei elkartasuna adierazteko egiten diren ekitaldi guztietan parte har dezaten”

Iruñean, 2017ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Amancio Ortega Fundazioak egindako dohaintzari buruzkoa.

CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkeztutako galdera, Amancio Ortega Fundazioak egindako dohaintzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

nión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen eta Nafarroako Gortetako kide den Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasuneko kontseilari Fernando Domínguezek Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

– Nafarroako Gobernuaren ustez, Amancio Ortega Fundazioak egindako dohaintzak emaila-aren irudi-garbiketa bat egiteko balio al du?

Iruñean, 2017ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

Galdera, British edo Ingelesez Ikasteko Programa egiten ari diren ikasleen ebaluazio diagnostikoa dela-eta ikastetxetara igortzen ari den komunikazioari buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, British edo Ingelesez Ikasteko Programa egiten ari diren ikas-

leen ebaluazio diagnostikoa dela-eta ikastetxetara igortzen ari den komunikazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Carlos Gimeno Gurpegui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua British Programa daukaten Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako zuzendaritzei

jakinarazten ari zaie ez daudela behartuta parte hartzera British edo Ingeleseko Ikasteko Programa egiten ari diren ikasleen laginari dagokien berriazko ebaluazio diagnostikoan, zeina 2016-2017 ikasturte honetan egiten baita. Zer dela-eta ari zarete jakinarazpen hori egiten?

Iruñean, 2017ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ETaren terrorismoari buruzko kontakizun berekia egiteko asmoa duen ala egiazki gertatu zena kontatuko duen.

CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ETaren terrorismoari buruzko kontakizun berekia egiteko asmoa duen ala egiazki gertatu zena kontatuko duen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta UPN-Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Nafarroako Gobernuak ETaren terrorismoari buruzko kontakizun berekia egiteko asmoa du ala egiazki gertatu zena kontatuko du?

Iruñean, 2017ko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuaren ustez ETaren terrorismoaren aurkako borrokan ez duen ez garaiturik ez garailerik egon behar bake iraunkorra lortuko bada.

CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuaren ustez ETaren terrorismoaren aurkako borrokan ez duen ez garaiturik ez garailerik egon behar bake iraunkorra lortuko bada.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta UPN-Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Nafarroako Gobernuaren ustez, ETaren terrorismoaren aurkako borrokan ez du ez garaiturik, ez garailerik egon behar bake iraunkorra lortuko bada?

Iruñean, 2017ko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ekimenik abiaraziko duen Espainiako gainerako erkidegoetan baino mantsoago hazteko aurreikuspena zuzentzeko.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ekimenik abiaraziko duen Espainiako gainerako erkidegoetan baino mantsoago hazteko aurreikuspena zuzentzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Ayerdi lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Jakin izanenez, aurreikuspenak dio Nafarroa Espainiako gainerako erkidegoak baino mantsoago haziko dela 2017an ere, 2015ean eta 2016an gertatu zen bezala. Nafarroako Gobernuak ekimenik abiaraziko al du hori zuzentzeko?

Iruñean, 2017ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Euskal Herriko Itzulia Iruñetik irtetearen benetako asmoari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Euskal Herriko Itzulia Iruñetik irtetearen benetako asmoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkartearen eledun Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilari Ana Herrerak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein izan da Euskal Herriko Itzulia Iruñetik irtetearen benetako asmoa?

Iruñean, 2017ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, altxamendu militarra, Gerra Zibila eta diktadurako errepresioa pertsonalki nahiz kolektiboki goratzeko armarrak, intsigniak, plakak eta gainerako objektu edo aipamenak Nafarroako Gobernuaren Jauregitik erretiratzeari buruzkoa.

LAURA LUCÍA PÉREZ RUANO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Lucía Pérez Ruano andreak aurkeztutako galdera, altxamendu militarra, Gerra Zibila eta diktadurako errepresioa pertsonalki nahiz kolektiboki goratzeko armarrak, intsigniak, plakak eta gainerako objektu edo aipamenak Nafarroako Gobernuaren Jauregitik erretiratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Pérez Ruano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Nafarroako Gobernuari honako galdera hauek aurkeztu dizkio, idatziz erantzun ditzan.

1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legeko 11. artikuluan ezartzen denez, Nafarroako Gobernuak, bere eskumenez baliatuz, behar diren neurriak hartuko ditu altxamendu militarra, Gerra Zibila eta diktadurako errepresioa pertsonalki nahiz kolektiboki goratzeko armarrak, intsigniak, plakak eta gainerako objektu edo aipamenak kentzeko.

Noiz aurreikusten duzue erretiratuko direla Nafarroako Gobernuren Jauregiaren barruan dauden gisa horretako elementuak (esate baterako, 1936ko kolpe militarren arduradunetako baten,

Tomás Domínguez Arévalo Rodezno Kondearen, margolana, zeina Lehendakaritza Aretoan baitago)?

Iruñean, 2017ko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: Laura Pérez Ruano

Galdera, Cascanteko alkateak Garapen Ekonomikorako kontseilariari egindako bilera-eskariari buruzkoa.

ÓSCAR ARIZCUREN POLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Óscar Arizcuren Pola jaunak aurkeztutako galdera, Cascanteko alkateak Garapen Ekonomikorako kontseilariari egindako bilera-eskariari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-

kita dagoen Óscar Arizcuren Pola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomikoko lehendakariordeak idatziz erantzun diezazkion:

2017ko urtarrilaren 9an, Cascanteko alkateak bilera bat eskatu zion Garapen Ekonomikoko lehendakariordeari, herriaren intereseko zenbait auziren berri emateko: Hiru hilabete igaro dira eta Cascanteko Udalari ez zaionez erantzunik eman, honako hau jakin nahi dut:

– Zergatik ez zaio oraindik ere erantzunik eman Cascanteko alkateak egindako eskariari?

– Lehendakariordeak ba al du asmorik alkatearen eskariari erantzunen bat emateko eta bilera hori egiteko data bat ezartzeko?

Hala baldin bada, zer data darabilzue gogoan?

Iruñean, 2017ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Óscar Arizcuren Pola

Galdera, krisiak Erriberan gehien zigortutako eremuak Enplegu Planean ezartzeko irizpideei buruzkoa.

ÓSCAR ARIZCUREN POLA ETA ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNEK EGIN DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Óscar Arizcuren Pola eta Alberto Catalán Higuera jaunek aurkeztutako galdera, krisiak Erriberan gehien zigortutako eremuak Enplegu Planean ezartzeko irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dauden Óscar Arizcuren Pola eta Alberto Catalán Higuera sek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten dituzte, Nafarroako Gobernu Eskubide Sozietako

lehendakariorde Miguel Laparrak idatziz erantzun ditzan:

Cascanteko Udalak, iragan irailaren 30ean egindako bilkuran, aho batez onetsi zuen Nafarroako Gobernuari eskatzea herria Enplegu Planean sartzeko langabeziak gehien zigortutako herrietako bat izateagatik, Nafarroako Gobernuak berariazko neurriak edo bestelako estrategia batzuk taxutu ahal izan ditzan bertako arazoak jorratzeko.

Udalaren eskari horren atzean dago Cascante dela, txosten eta azterlan ugari agerian utzi duten bezala, langabezia-tasarik handieneko eremueta-ko bat Erriberan, Castejón, Cintruénigo eta Corellarekin batera, eta horiek bai agertzen dira Enplegu Planean arreta jarri beharreko lekuen artean.

Hori dela eta, honakoa galdetzen dugu:

– Zer irizpide baliatu dira krisiak Erriberan gehien zigortutako eremuak Enplegu Planean ezartzeari begira?

– Eskubide Sozietako Departamentuak aintzat hartu al du edo aintzat hartuko al du Cascanteko Udalaren eskaria?

Iruñean, 2017ko apirilaren 4an

Foru parlamentariak: Óscar Arizcuren Pola eta Alberto Catalán Higuera

Galdera, jakiteko ea Garapen Ekonomikorako Departamentuak Cascanteko Udalaren eskaria aintzat hartuko duen eta, hartara, herria Enplegu Planean sartuko duen.

ÓSCAR ARIZCUREN POLA ETA ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNEK EGIN DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Óscar Arizcuren Pola eta Alberto Catalán Higuera jaunek aurkeztutako galdera, jakiteko ea Garapen Ekonomikorako Departamentuak Cascanteko Udalaren eskaria aintzat hartuko duen eta, hartara, herria Enplegu Planean sartuko duen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dauden Óscar Arizcuren Pola eta Alberto Catalán Higuera jaunek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten dituzte, Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomikora-

ko lehendakariorde Manu Ayerdi Olaizola idatziz erantzun ditzan:

Cascanteko Udalak, iragan irailaren 30ean egindako bilkuran, aho batez onetsi zuen Nafarroako Gobernuari eskatzea herria Enplegu Planean sartzea langabeziak gehien zigortutako herrietako bat izateagatik, Nafarroako Gobernuak berariazko neurriak edo bestelako estrategia batzuk taxutu ahal izan ditzan bertako problematika jorrazteko.

Udalaren eskari horren atzean dago Cascante dela, txosten eta azterlan ugari agerian utzi duten bezala, langabezia-tasarik handieneko eremuetako bat Erriberan, Castejón, Cintruénigo eta Corellarekin batera, eta horiek bai agertzen dira Enplegu Planean, arreta jarri beharreko lekuen artean.

Hori dela eta, honakoa galdetzen dugu:

– Zer irizpide baliatu dira krisiak Erriberan gehien zigortutako eremuak Enplegu Planean ezartzeari begira?

– Garapen Ekonomikorako Departamentuak aintzat hartu al du edo aintzat hartuko al du Cascanteko Udalaren eskaria?

Iruñean, 2017ko apirilaren 4an

Foru parlamentariak: Óscar Arizcuren Pola eta Alberto Catalán Higuera

Galdera, lan-eskaintza publikoetako deialdietan ingeleseko titulazioa merezimendu gisa kontuan hartzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, lan-eskaintza publikoetako deialdietan ingeleseko titulazioa merezimendu gisa kontuan hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

- Brexit deitutakoa gauzatzen denean ingelesak izan dezakeen estatusari dagokionez, parlamentari honek jakin nahi du horrek zer eragin izan dezakeen lan-eskaintza publikoetako deialdietan ingeleseko titulazioa merezimendu gisa kontuan hartzeari begira.

Iruñean, 2017ko apirilaren 5ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, garraiobide egokitueterako diru-laguntzak emateko deialdiari eta mugikortasun mugatuko pertsonen irisgarritasuna errazteko neurrii buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, garraiobide egokitueterako diru-laguntzak emateko deialdiari eta mugikortasun mugatuko pertsonen irisgarritasuna errazteko neurrii buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik garraiobide egokitueterako diru-laguntzak emateko deialdia egiteko?

– Nafarroako Gobernuaren ustez, diru-laguntza horiek baliagarriak al dira mugikortasun mugatuko herritarren irisgarritasuna eta garapena errazteko?

– Nafarroako Gobernuak neurririk hartuko al du irisgarritasun hori errazteko?

Corellan, 2017ko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

